

DONOSTIAKO UDALA**Idazkaritza Nagusia**

Eraikinetako eraginkortasun energetikoari eta ingurumen kalitateari buruzko Udal Ordenantzaren behin betiko onespena.

Donostiako Udalak, 2008ko irailaren 26an egindako osoko bilkuran, Eraikinetako Eraginkortasun Energetikoari eta Ingurumen-Kalitateari buruzko Udal-Ordenantza behin behingoz onestea erabaki zuen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonak egokitzat zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Epea amaituta zenbait alegazio eta iradokizun aurkeztu ziren eta hauetako batzuk onartu egin dira; Udalbatzak, Eraikinetako Eraginkortasun Energetikoari eta Ingurumen-Kalitateari buruzko Udal-Ordenantzaren behin betiko testua, 2009ko maiatzaren 29an, egindako bileran onartu zuelarik.

Erabaki honekin ados ez dagoenak bi hilabete du errekursoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Ordenantza argitara ematera goaz.

Donostia, 2009ko ekainaren 1a.—Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkariordea. (7009)

**ERAIKINETAKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOARI
ETA INGURUMEN-KALITATEARI BURUZKO
UDAL-ORDENANTZA**

ARRAZOIAK

1998ko martxoaren 23an, Aalborgeko Gutuna sinatzean, Donostiako Udala Europako Hiri Iraunkorren Kanpainan sartu zen, eta zenbait konpromiso hartu zituen bere gain, Agenda 21ean zehaztutako ereduaren bitartez garapen iraunkorra sustatzeko.

Toki Agenda 21ek energia aurrezte eta energia berriztagarriak sustatzea dauka helburu, besteak beste. 2004ko uztailaren 16an egindako ohiko bileran, udal-gobernuak Toki Agenda 21 Agiria onartu zuen, eta udalbatzari onarpen horren berri eman zion, 2004ko abuztuaren 31n egin zuen bileran.

2008ko urtarrilaren 11n, Toki Gobernurako Batzordeak 2008-2013ko Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako I. Toki Plana onartu zuen. Horrela, hiriak Kiotoko Protokoloa betetzeko moduko neurriak hartzeko konpromisoarekin bat egin zuen, klima-aldaketaren aurkako jarduerak zehazteko tresna juridiko nagusia da-eta. Arau hori ezartzean, planean aurreikusitako helburuak lortu ahal izango dira, energia berriztagarriak erabiltzean eta eraikinetako eraginkortasun energetikoa erdies-tean.

Konpromiso politikoaz gain, eraikinetako eraginkortasun energetikoari buruzko 2002/91/EE Zuzentaraua indarrean sartu zenean, aldaketa handia gertatu zen sektorean ikuspegi teknikoari dagokionez. Besteak beste, zuzentarauak zehaztutako eskakizunek zerikusia daukate eraikinetako eraginkortasun energetikoa kalkulatzeko metodologiaren esparru orokorrarekin, eraginkortasun energetikoaren gutxienezko eskakizunekin eta eraikinen ziurtapen energetikoarekin.

AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN**Secretaría General**

Aprobación definitiva de la Ordenanza Municipal de eficiencia energética y calidad ambiental de los edificios.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 26 de setiembre de 2008, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética y Calidad Ambiental de los Edificios y, al propio tiempo, abrir un periodo de información pública, a fin de que cualquier persona tuviese ocasión de formular alegaciones o sugerencias.

Finalizado este plazo, se presentaron varias alegaciones, algunas de las cuales han sido estimadas, aprobándose definitivamente el texto de la Ordenanza Municipal de Eficiencia Energética y Calidad Ambiental de los Edificios por el Excmo. Ayuntamiento Pleno en su sesión de 29 de mayo de 2009.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a la publicación del texto íntegro de la Ordenanza aprobada.

Donostia-San Sebastián, a 1 de junio de 2009.—El Vicesecretario, Iñaki Txintxurreta Perdiguero. (7009)

**ORDENANZA MUNICIPAL DE EFICIENCIA
ENERGÉTICA Y CALIDAD AMBIENTAL
DE LOS EDIFICIOS**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Con la firma el 23 de marzo de 1998 de la Carta de Aalborg, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián ingresaba en la Campaña de Ciudades Europeas Sostenibles y adquiría una serie de compromisos para potenciar el desarrollo sostenible en el municipio a través de las pautas marcadas en la Agenda 21.

La Agenda 21 Local tiene entre sus objetivos el ahorro energético y el fomento de las energías renovables. El Gobierno Municipal, en su sesión ordinaria de 16 de julio de 2004, aprobaba el Documento Agenda Local 21 y daba cuenta de tal aprobación al Ayuntamiento Pleno en su sesión de 31 de agosto de 2004.

La Junta de Gobierno Local, en sesión de 11 de enero de 2008, aprobó el I Plan Local de Lucha contra el Cambio Climático 2008-2013. De esta manera, la Ciudad se suma al compromiso de adopción de medidas a favor del cumplimiento del protocolo de Kyoto, principal instrumento jurídico para la definición de las actuaciones contra el cambio climático. La aplicación de esta norma contribuirá a la consecución de los objetivos previstos por aquel Plan, en la medida en que prevé la utilización de energías renovables, y persigue la obtención de la eficiencia energética en los edificios.

Además del compromiso político existente, desde el punto de vista técnico, la entrada en vigor de la Directiva 2002/91/CE, relativa a la eficiencia energética de los edificios, supuso un importante punto de inflexión en el sector. Entre otros aspectos, la Directiva establece requisitos en relación con el marco general de una metodología de cálculo de la eficiencia energética integrada de los edificios, con los requisitos mínimos de eficiencia energética y con la certificación energética de edificios.

Zuzentarauaren transposizioa honako hauen bidez egin zen: Eraikuntzaren Kode Teknikoa (EKT) onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua, Eraikin Berrietako Eraginkortasun Energetikoa ziurtatzeko Oinarrizko Prozedura onartzen duen urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretua eta uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia (EITA). Esan gabe doa arauok zehaztutako helburu guztiak izan direla kontuan ordenantza hau egiteko orduan, eta baita Udaltzaren 2002ko azaroaren 29an egindako osoko bileran arkitektura bioklimatikoaz eta energia eraginkortasunaz hartutako erabakia ere.

Esparru horretan, udalak arau hau onartu du, eraikinetako eraginkortasun energetiko eta ingurumen-eraginkortasunerako irizpideak zehazteko eta eskatzeko. Horrela, gaur egungo eraikin-ereduek ez dute arriskuan jarriko etorkizuneko belaunaldiak beren energia eta ingurumen premiei aurre egiteko daukaten gaitasuna.

Ekimen horri esker, udalak abian jarritako gizarte-aldaketak aurrera egingo du, eta eraikinak beste era batera sortu, diseinatu eta erabili egingo dira, iraunkortasunari eta ingurumenaren errespetuari begira.

Ordenantza honek eraikinen garapen iraunkorra lortzea dauka helburu, eta, horretarako, eraginkortasun energetikorako eta ingurumenaren kalitateko parametroak kontuan hartuko dira eraikinetan. Parametro horiek ordenantza honetako eranskinetan zehaztu eta garatu egiten dira eta honako helburu hauek dituzte:

— Eraikinetako energia-eskaria murriztea, ingurakaria kontrolatzeko energia-estrategia pasibo eta aktiboaren bitartez. Era berean, energiari begira eraginkorrak diren instalazioak sustatzea.

— Erosotasun-baldintza egokiak lortzea eta erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea, iraunkortasunari dagokionez.

— Energia berriztagarriak erabiltzea eta, eraikinetan, eguzki-energia erakartzeko sistemak jartzea.

— Uraren kontsumoari begira, ingurumen-erloto kudeaketa bultzatzea eta etxeko, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzea.

Ordenantza lau titulutan banatuta egongo da. Lehenengoan, oro har ezarri beharreko xedapenak azalduko dira. II. tituluan, ordea, ordenantza bete egiten dela egiaztatze prozedura da hizpide nagusia. Bestetik, III. tituluan, eguzki-energia erakartzeko instalazioen zenbait alderdi arautzen dira. IV. tituluan, berriz, ordenantza betetzeko erabili beharreko tresnak eta prozedurak arautzen dira; eta azkenik, V. tituluan, eraikin iraunkorrak sustatzeko udal-jarduerak arautuko duten printzipioak jorratzen dira.

Ordenantzan, lau eranskin azaltzen dira. I. eranskinean (Energiaren kudeaketa integratua), honako hauexek arautzen dira: Eraikitze estrategia pasiboak (ingurakariaren tratamendua) eta estrategia aktiboak (instalazioak), instalazioetako eraginkortasun energetikoa, eguzki-energia termikorako instalazioak eta eguzki-energia fotovoltaikorako instalazioak. I. Eranskin horretako F idatz-zatian, eraikinaren ziurtapen energetikoaren ezarpena arautzen da.

II. eranskinean (Ingurumenaren kalitatea), zenbait tresna zehazten dira, ura kudeatzeko, kontsumoa murrizteko eta kontsumoaren eraginkortasuna bultzatzeko. Era berean, etxeko, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko bete beharreko eskakizunak ere arautzen dira.

III. eranskinean, hiriko klimari buruzko datuak azaltzen dira.

IV. eranskinean, aldiz, eraikitze jardueraren fase bakoitzean edo araupeko jarduketan zer agiri aurkeztu behar diren adierazten da.

Su transposición se llevó a cabo mediante el Real Decreto 314/2006 de 17 de marzo por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación (CTE), el Real Decreto 47/2007 de 19 de enero por el que se aprueba el procedimiento básico para la certificación de eficiencia energética de edificios de nueva construcción, y con el Reglamento de Instalaciones Térmicas de la Edificación (RITE) aprobado por Real Decreto 1027/2007 de 20 de julio. Todas estas normas establecen objetivos que, como no podría ser de otra manera, han sido tenidos en cuenta en la elaboración de esta norma, al igual que el Acuerdo Plenario de fecha 29 de noviembre de 2002, relativo a arquitectura bioclimática y eficiencia energética.

En este marco y con la finalidad de evitar que las pautas actuales en la edificación comprometan la capacidad de las generaciones futuras para satisfacer sus propias necesidades energéticas y medioambientales, este Ayuntamiento aprueba esta Norma para la fijación y exigencia de criterios de eficiencia energética y ambiental en los edificios.

Continúa con esta iniciativa el proceso de cambio social liderado por los municipios en la manera de concebir, diseñar, construir y utilizar los edificios, desde la perspectiva de la sostenibilidad y respeto ambiental.

Es objetivo de esta Ordenanza la obtención de un desarrollo edificatorio sostenible, mediante la incorporación en los edificios de los parámetros de eficiencia energética y calidad ambiental, que se incorporan y desarrollan en los Anexos de la presente Ordenanza, y conseguir así:

— La reducción de la demanda de energía de los edificios, mediante estrategias energéticas pasivas de control de la envolvente, y activas promoviendo unas instalaciones energéticamente eficientes.

— La obtención de las adecuadas condiciones de confort, mejorando la calidad de vida de las personas usuarias, en términos de sostenibilidad.

— La introducción de energías renovables, incorporando sistemas de captación de energía solar en los edificios.

— La gestión ambiental en cuanto al control del consumo de agua y la gestión de residuos domésticos y de residuos procedentes de la construcción y demolición.

La Ordenanza se divide en cuatro títulos. El primero de ellos establece las disposiciones de aplicación general. El Título II se dedica a la verificación del cumplimiento de la Ordenanza. El Título III regula determinados aspectos de las instalaciones de captación de energía solar, el Título IV, los instrumentos y procedimientos a utilizar en garantía del cumplimiento de la ordenanza y, por último, el Título V aborda los principios que regirán la actuación municipal en materia de fomento de la edificación sostenible.

Se incorporan a la Ordenanza cuatro Anexos. El Anexo I -Gestión integrada de la energía- regula las estrategias pasivas (el tratamiento de la envolvente) y las activas (instalaciones) en la edificación, la eficiencia energética de las instalaciones, las instalaciones de energía solar térmica y las de energía solar fotovoltaica. El apartado F de dicho Anexo I regula la aplicación de la certificación energética del edificio.

El Anexo II -calidad ambiental- establece instrumentos para la gestión del agua, la limitación de su consumo y la eficacia del mismo. Se regulan también los requisitos a cumplir en la gestión de los residuos domésticos y en la de los residuos de la construcción y demolición.

El Anexo III recoge los datos climáticos de la ciudad.

El Anexo IV describe la documentación que debe presentarse en cada fase de la actividad de edificación o actuación afectada por la norma.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Arauketaren helburua.

Arau honek eraikinen garapen iraunkorra lortzen laguntzea dauka helburu, eta, horretarako, eraginkortasun energetikorako eta ingurumenaren kalitaterako parametroak hartuko dira kontuan, Donostiako Udaleko eraikinetan. Parametro horiek ordenantza honetako eranskinetan garatzen dira, eta, barruko erosotasun-baldintzak aldatu gabe, energia aurrezte eta negutegi-efektuko gasen igorpen kutsagarriak murriztea dute xede. Horrez gain, honako helburu hauek ere badituzte:

- Eraikineko energia eskaria gutxitzea.
- Energiari begira eraginkorrak diren instalazioak sustatzea.
- Eraikinetan energia berriztagarriak edo alternatiboak erabiltzea.
- Ingurumen kalitaterako parametroak kudeatzea (ura eta hondakinak).

Horretarako, honako hauexek arautuko dira ordenantza honetan:

- Energia eskaria murriztea. Horretarako, eraikinaren ingurakaria tratatuko da, nahi gabeko galera eta irabazi termikoak arautzeko.
- Energiari begira eraginkorrak diren instalazioak erabiltzea. Horrela, errendimendu onak lortuko dira argietan eta instalazio termikoetan (berokuntza, hozkuntza, ur bero sanitarioa (UBS) eta eguraspena).
- Eraikinetan, energia alternatiboak, berriztagarriak eta garbiak erabiltzea eta behe-tenperaturako eguzki-energia termikoa erakartzeko eta erabiltzeko sistemak jartzea. Horrela, ur bero sanitarioa eta energia elektriko bihurtuko den eguzki-energia fotovoltaikoa sortuko dira.
- Eraikinetan, uraren kontsumoa murrizteko sistemak jartzea, eta baita uraren kontsumoa kontrolatzeko eta neurtzeko, jarioak kontrolatzeko eta abarretarako elementu zehatzak ere.
- Etxeko, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko neurriak hartzea.

2. artikulua. Ordenantza bete behar dutenak.

3. artikuluan aurreikusitako jarduketak bultzatzen dituzten sustatzaile eta eraikitzaile publiko edo pribatuek ordenantza honetan xedatutakoa bete beharko dute ezinbestean.

Era berean, nork bere arloan, ordenantza honetan agindutakoa bete beharko dute:

- a) Erasandako higiezinaren jabea, sustatzailea ez bada.
- b) Proiektugile fakultatiboa eta lanak betearazteko zuzendaria, beren lanbide-eskumenen esparruan.
- c) Instalazioa egiten duen enpresa.
- d) Erabilera edo establezimenduetako titularra, zuzendaria edo onuraduna.

Eraikin, etxebizitza eta instalazioetako titularrek ondo erabili eta artatu egin beharko dituzte, sistemak behar bezala dabiltzala eta eraginkorrak direla bermatzeko.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Finalidad y objeto de la regulación.

El objetivo de esta regulación la contribución a un desarrollo edificatorio sostenible mediante la incorporación en los edificios del término municipal de Donostia-San Sebastián de los parámetros de eficiencia energética y de calidad ambiental que se desarrollan en los Anexos de la presente Ordenanza, para ahorrar energía y disminuir las emisiones contaminantes de Gases de efecto invernadero a la atmósfera, sin menoscabo de las condiciones interiores de confort:

- Reduciendo la demanda energética del edificio.
- Promoviendo instalaciones energéticamente eficientes.
- Utilizando energías renovables o alternativas en los edificios.
- Gestionando parámetros (Agua y Residuos) de Calidad Ambiental.

A tal efecto se regula en la presente ordenanza:

- La limitación de la demanda energética, por el tratamiento de la envolvente del edificio para regular las pérdidas y ganancias térmicas no deseadas.
- La utilización de instalaciones eficientes energéticamente, con buenos rendimientos en las instalaciones Térmicas (Calefacción, Refrigeración, Agua Caliente Sanitaria (ACS) y ventilación) e Iluminación.
- La introducción de energías alternativas, renovables y limpias, en los edificios incorporando sistemas de captación y utilización de energía solar térmica, de baja temperatura, para producir agua caliente sanitaria y energía solar fotovoltaica para su transformación en energía eléctrica.
- La incorporación en los edificios de sistemas de reducción del consumo de agua, así como elementos precisos de control y medición del mismo, control de fugas, etc.
- La incorporación de medidas de gestión de residuos domésticos y de la construcción y demolición.

Artículo 2. Personas responsables del cumplimiento de la ordenanza.

La presente ordenanza será de obligado cumplimiento para las personas promotoras y constructoras, públicas o privadas, que promuevan las actuaciones previstas en el Artículo 3.

Así mismo, y cada una en el ámbito que le corresponda, deberán cumplir las prescripciones de esta ordenanza:

- a) La persona propietaria del inmueble afectado si no fuera la promotora.
- b) La persona facultativa autora del proyecto, y la directora de ejecución de la obra, en el ámbito de sus facultades profesionales.
- c) La empresa que realiza la instalación.
- d) La persona titular, directora o beneficiaria de los usos o de los establecimientos.

Las personas titulares de edificios, viviendas e instalaciones tendrán la obligación de hacer un buen uso y mantenimiento de éstas para garantizar el correcto funcionamiento y eficacia de los sistemas.

3. artikulua. *Hirigintzan erasandako jarduketak eta erabilerak.*

3.1. Ordenantza honetan zehaztutako arauak oso-osorik edo zatika ezarriko dira, eraikinaren jarduketa-motaren eta erabileraren arabera, kasuan kasuko artikuluan edo eranskinean xedatutakoa kontuan hartuta.

3.2. Arau hau ezartzeko, honako jarduketa-mota hauek bereizten dira:

a) Eraikin berriak egiteko lanak, erraz eraikitzen direnak izan ezik, betiere behin-behinean edo betiko bizitegi-eraikinak eta eraikin publikoak ez badira eta solairu bakarra badute.

b) Eraikinak handiagotzeko, aldatzeko, eraldatzeko edo zaharberritzeko lanak, betiere beren arkitektura aldatzen badute, hau da, erabateko edo zatikako jarduketak badira, kanpoko eraketa orokorra, bolumetria edo egitura-sistema osoa funtsean aldatzen badute edo beren helburua egokitzapen funtzionalak egitea edo eraikinaren erabilera bereizgarriak aldatzea bada.

Lan horiek bi kategoriatan banatuko dira, eranskinak ezartzeko orduan:

— lehendik dauden eraikinetan egindako lanak, betiere milatik (1.000tik) gora metro koadroko azalera erabilgarrian (Su-n) eraginik badute eta kanpoko itxituren %25 eraldatzen bada.

— Lehendik dauden gainerako eraikinetan egindako lanak.

c) Katalogatutako eraikinetan edo lege-arauaren edo hirigintza-agiriaren arabera araututako ingurumen-babesa edo babes historiko artistikoa duten erakinetan erabateko jarduketatzat hartzen diren lanak eta babestu beharreko elementu edo ataletan eragina duten beste lan partzial batzuk.

d) Kasuan kasuko eranskinetan adierazitako beste jarduketa batzuk; esate baterako, lehendik dagoen eraikinaren erabilera bereizgarria aldatzea, lehendik dauden eraikinetako itxiturak zaharberritzea, hirugarren erabilerarako edo hornikuntza-erabilerarako lokalak eraldatzeko lan txikiak egitea eta etxebizitza-erabilerari beste erabilera bat ematea, betiere argi-instalazioa berri-tzen bada eta/edo instalazio termikoak (klimatizazioa eta UBS) eta/edo ur-hornikuntzarako instalazioak eraldatzen badira.

3.3. Honako hauexek ez dira ordenantza honetako ezarpen-eremuan kontuan hartuko:

a) Beren erabilera-ezaugarriengatik zabalik egon behar diren eraikinak.

b) Izendatutako ingurune osoagaiak izateagatik edo balio arkitektonikoa edo historikoa edukitzeagatik modu ofizialean babestuta dauden eraikinak eta monumentuak, eskakizun horiek betearaztean arauz jarritako babes baldintzak aldatu ahal badira.

c) Gurtzarako eta erlijio-jardueretarako erabilitako eraikinak.

d) Bi urtez edo hortik beherako epean erabiliko diren behin-behineko eraikinak.

e) 50 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikin isolatuak.

f) Zaharberritu beharreko eraikinetan, 5 kW-tik beherako potentzia termikoa duten instalazioetan egin beharreko jarduketak.

Artículo 3. *Intervenciones y usos urbanísticos afectados.*

3.1. Las normas contenidas en esta Ordenanza se aplicarán, en función del tipo de intervención y uso de la edificación, íntegra o parcialmente, según se establezca en el artículo o anexo correspondiente.

3.2. A efectos de la aplicación de la presente norma, se distinguen los siguientes tipos de intervención:

a) Obras de edificación de nueva construcción, excepto aquellas construcciones de escasa entidad constructiva y sencillez técnica que no tengan, de forma eventual o permanente, carácter residencial ni público y se desarrollen en una sola planta.

b) Obras de ampliación, modificación, reforma o rehabilitación que alteren la configuración arquitectónica de los edificios, entendiéndose por tales las que tengan carácter de intervención total o las parciales que produzcan una variación esencial de la composición general exterior, la volumetría, o el conjunto del sistema estructural, o tengan por objeto adaptaciones funcionales o el cambio de los usos característicos del edificio.

Estas obras se dividen en dos categorías a efectos de aplicación de los Anexos:

— obras en edificios existentes que afectan a una superficie útil (Su) mayor de mil (1.000) metros cuadrados (Su > 1.000 m²) y en las que se reforme el 25% de sus cerramientos exteriores.

— Obras en el resto de edificios existentes.

c) Obras que tengan el carácter de intervención total en edificaciones catalogadas, o que dispongan de algún tipo de protección de carácter ambiental o histórico artístico, regulada a través de norma legal o documento urbanístico y aquellas otras de carácter parcial que afecten a los elementos o partes objeto de protección.

d) Otras intervenciones que se detallen en los Anexos correspondientes, como son el cambio del uso característico de un edificio existente, rehabilitación de cerramientos de edificios existentes, obras menores de reforma en locales destinados a un uso terciario o dotacional y los cambios de uso de vivienda a otro uso siempre que se renueve la instalación de Iluminación y/o se reformen las instalaciones térmicas (climatización y ACS) y/o de suministro de agua.

3.3. Se excluyen del campo de aplicación de esta ordenanza.

a) Aquellas edificaciones que por sus características de utilización deban permanecer abiertas.

b) Los edificios y monumentos protegidos oficialmente por ser parte de un entorno declarado o en razón de su particular valor arquitectónico o histórico, cuando el cumplimiento de tales exigencias pudiese alterar el régimen de protección que se hubiera establecido normativamente.

c) Edificios utilizados como lugares de culto y para actividades religiosas.

d) Construcciones provisionales con un plazo previsto de utilización igual o inferior a dos años.

e) Edificios aislados con una superficie útil total inferior a 50 m².

f) Las actuaciones sobre instalaciones cuya potencia térmica sea inferior a los 5 kW, en edificios sujetos a rehabilitación.

3.4. Modu enuntziatiboan eta ez-murritzaitlean, eraikinen erabilera hauetan ezarriko da ordenantza:

- Bizitegirakoa.
- Hezkuntza eta irakaskuntzarakoa.
- Osasunerakoa.
- Kiroletarakoa (kiroldegiak, igerilekuak eta gimnasioak).
- Ostaturakoa, turismo-bizitegirakoa.
- Ostalaritzarakoa, sukaldaritzarakoa.
- Saltzailea.
- Administraria.

— Ur bero sanitarioa (UBS) kontsumitzen duten beste erabilera batzuetarakoa. Hain zuzen ere, ordenantza honetan energiari buruz zehaztutakoa igerileku berrietan eta lehendik dauden aldaketetan ezarri beharko dira, klimatizaziorako edo ur bero sanitarioarako energia termikoa kontsumitzen duten sistematik erabiltzen dituztenean.

Ordenantza honetan zehaztutako hirigintza-erabilerek indarrean dagoen hirigintza-plangintza orokorrean adierazitako kontzeptuak hartuko dituzte kontuan.

4. artikulua. Proiektuaren zein amaitutako eraikinaren eraginkortasun, kalifikazio eta ziurtagapen energetikoa.

4.2. Indarreko arautegiaren arabera, honako hauxe izango da:

a) Eraikineko eraginkortasun energetikoa: Funzionamendurako eta okupaziorako baldintza arruntetan eraikineko energia-eskariari aurre egiteko beharrezkoa den energia-kontsumoa.

b) Eraikineko eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa: Eraikineko eraginkortasun energetikoaren adierazpena. Zehazteko orduan, kalkulu-metodologia eta adierazle energetikoak erabiltzen dira, eraginkortasun energetikoaren etiketaren bidez.

c) Proiektuko eraginkortasun energetikoaren ziurtagapen: Prozesu honen bitartez, egiaztatu egiten da proiektuak lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa egokia dela eta proiektuari eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eman ahal zaiola.

d) Amaitutako eraikineko eraginkortasun energetikoaren ziurtagapen: Prozesu honen bitartez, egiaztatu egiten da proiektuak eta amaitutako eraikinak lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazioak bat datozela eta amaitutako eraikinari eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eman ahal zaiola.

e) Proiektuko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria: Ziurtatzeko prozesuaren ondorioz, proiektugileak sinatutako agiriak. Bertan, proiektuak eraginkortasun energetikoaren eskalan lortutako kalifikazioa agertzen da.

f) Amaitutako eraikineko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria: Ziurtatzeko prozesuaren ondorioz, obrako zuzendaritza fakultatiboak sinatutako agiriak. Bertan, amaitutako eraikinak eraginkortasun energetikoaren eskalan lortutako kalifikazioa agertzen da. Egiaztagiri hori eraikinaren liburuan sartuko da, eta nahitaezko baldintza izango da Lehen Erabilerako Lizentzia eskuratzeko.

4.2. Ordenantza honetan zehaztutako arauak betetzeko, C mailako eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa lortu beharko da sustapen pribatuko eraikinetan; eta B mailakoa, udal-sustapen publikoko eraikinetan. Bertan, gainera, eraikuntza berriko lanak lehendik dauden eraikinak aldatzeko, eraldatzeko edo zaharberritzeko lanak hartuko dira kontuan, betiere azalera erabilgarria 1.000 m²-tik gorakoa bada eta kanpoko itxitura guztien %25 berritzen bada.

3.4. Los usos de las edificaciones a los que se aplicará la Ordenanza son, con carácter enunciativo y no limitativo, los siguientes:

- Residencial.
- Educativo-Docente.
- Sanitario.
- Deportivo (polideportivos, piscinas y gimnasios).
- Hospedaje, Residencial Turístico.
- Hostelería, Restauración.
- Comercial.
- Administrativo.

— Otros usos que comporten consumo de agua caliente sanitaria (ACS). En concreto, las determinaciones de esta Ordenanza sobre energía serán de aplicación a las piscinas de nueva construcción y también en los casos de modificación de las existentes, cuando su funcionamiento suponga utilizar sistemas que consuman energía térmica para climatización o agua caliente sanitaria.

Los usos urbanísticos recogidos en la presente ordenanza se entenderán con arreglo a los conceptos que recoja el planeamiento urbanístico en vigor.

Artículo 4. Eficiencia, calificación y certificado energético del proyecto y del edificio terminado.

4.1. De conformidad con la normativa vigente, se entiende por:

a) Eficiencia energética de un edificio: Consumo de energía que se estima necesario para satisfacer la demanda energética del edificio en unas condiciones normales de funcionamiento y ocupación.

b) Calificación de eficiencia energética de un edificio: Expresión de la eficiencia energética de un edificio que se determina de acuerdo con una metodología de cálculo y se expresa con indicadores energéticos mediante la etiqueta de eficiencia energética.

c) Certificación de eficiencia energética de proyecto: Proceso por el que se verifica la conformidad de la calificación de eficiencia energética obtenida por el proyecto y que conduce a la expedición del certificado de eficiencia energética del proyecto.

d) Certificación de eficiencia energética del edificio terminado: Proceso por el que se verifica la conformidad de la calificación de eficiencia energética obtenida por el proyecto con la del edificio terminado y que conduce a la expedición del certificado de eficiencia energética del edificio terminado.

e) Certificado de eficiencia energética de proyecto: Documentación suscrita por el proyectista como resultado del proceso de certificación, que incluye la calificación de eficiencia energética del proyecto, señalada en la escala de eficiencia energética.

f) Certificado de eficiencia energética del edificio terminado: Documentación suscrita por la dirección facultativa de la obra como resultado del proceso de certificación, que incluye la calificación de eficiencia energética del edificio terminado, señalada en la escala de eficiencia energética. Este certificado se incorporará al libro del edificio y será requisito indispensable para obtener la Licencia de Primera Utilización.

4.2. El cumplimiento de las normas contenidas en esta ordenanza supone, para los casos de obras de nueva construcción o de aquellas de modificación, reforma o rehabilitación de edificios existentes, con una superficie útil superior a 1.000 m², donde se renueve más del 25 por 100 del total de sus cerramientos exteriores, la obtención de la calificación de eficiencia energética Clase C para los edificios de promoción privada y de Clase B para los edificios de promoción pública municipal.

5. artikulua. Ordenantzaren betearazpena.

Ordenantza honetan zehaztutako eskakizunak bere ezarpen-eremupean dauden eraikinen eta instalazioen proiektuan, eraikuntzan, eraikinaren erabil bizitzan egin beharreko manten-tze lanetan eta artapenean bete beharko dira.

Eskakizun horien betearazpena kasuan kasuko eranskinetan aurreikusitako jarduketeta-motaren arabera ezarritako uneetan egiaztatuko da.

Ordenantza honetan zehaztutako neurriek eta eskakizunek ezarri beharreko hirigintza-plangintzan adierazitako arauak eta gainerako arautegia izango dituzte osagarri.

Adierazitako eskakizun energetikoak lortzeko, betearazpe-naren arduradunek ordenantza honetan aipatutako irtenbide tek-nikoak hartu beharko dituzte kontuan. Era berean, aukerako irtenbideak ere erabili ahal izango dituzte, betiere Udalaren zerbitzu teknikoaren iritzian jarduketa horrek ordenantzako eska-kizunak eta helburuak betetzen dituela agiri bidez egiaztatzen badute, beren prestazioak ordenantza honetan agindutakoa ezartzean lortuko lirakekeen baliokideak dira eta.

Helburu diren prestazioak lortzerik ez badago, proiektuan bertan ezinezkoa dela justifikatu beharko da dagokion udal zerbitzu teknikoaren aurrean, eta, hala badagokio, aukerako neurri tekniko eta ekonomiko bideragarrien bitartez konpen-satu beharko da.

Arau honetan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, instala-zioek eraikinetako instalazio termikoei buruzko araudia eta indarreko gainerako xedapenak bete beharko dituzte, baina batez ere, legionelosiaren prebentzio eta kontrolari buruzkoak. Bertako osagaiak behar bezala homologatuta edo onetsita egongo dira, eta, indarreko legeriaren arabera, kontsumo-onda-sunak saltzeagatiko bermearen babespean egongo dira.

6. artikulua. Udalaren eskumenak.

Udalak legearen arabera dituen eskumenak erabiliko ditu, arau honetan aurreikusitakoa bete egiten dela bermatzeko.

Ordenantza honen eraginpean dauden jarduketei dagokie-nez, udalak lanak eta instalazioak ikuskatzeko, egiaztatzeko eta kontrolatzeko eskumenak ditu indarreko legeriaren arabera. Horrela, eskatu daitezkeen arauak edo baldintza teknikoak bete-tzen direla egiaztatu ahal izango du, eta, horretarako, probak edo saiakuntzak ere egin ahal izango ditu.

Era berean, arau honetan aurreikusitakoaren aurkako jarrerak ere zigortu ahal izango ditu, beharrezko zehapen espedientea bideratu ondoren, eta, egokia denean, araua betearazteko agindua ere eman ahal izango du, kontrako espedientea egin eta gero.

II. TITULUA

ORDENANTZA BETE EGITEN DELA EGIAZTATZEA

7. artikulua. Aurretiazko informazioa.

Edozein lizentzia urbanistiko eskatu baino lehen, interesdu-nak udal-administrazioari eskatu ahal izango dio ordenantza honen arabera bere jarduketan ezarri beharreko eskakizunak zein diren eta nola bete eta egiaztatu behar dituen azaltzeko.

Artículo 5. Cumplimiento de la Ordenanza.

Las exigencias contenidas en esta Ordenanza deben cum-plirse en el proyecto, la construcción, el mantenimiento durante la vida útil del edificio y la conservación de los edificios e ins-talaciones incluidos en su ámbito de aplicación.

El cumplimiento de dichas exigencias se acreditará en los momentos que para cada tipo de actuación se prevén en los Anexos correspondientes.

Las medidas establecidas y los requisitos exigidos en la pre-sente ordenanza deberán ser complementados con las normas establecidas en el planeamiento urbanístico aplicable y con el resto de normativa de aplicación.

Para alcanzar las exigencias energéticas exigidas, las perso-nas responsables de su cumplimiento deberán adoptar las solu-ciones técnicas referidas en esta ordenanza. Podrán emplear soluciones alternativas, siempre que, a juicio de los servicios técnicos municipales, justifiquen documentalmente que la correspondiente intervención cumple los requisitos y objetivos perseguidos por esta Ordenanza, al ser sus prestaciones, al menos, equivalentes a los que se obtendrían por la aplicación de las prescripciones de esta norma.

En los supuestos en que no fuera posible obtener las presta-ciones pretendidas, deberá justificarse ante los servicios técni-cos competentes de la administración municipal tal imposibili-dad en el proyecto y, en su caso, compensarse con medidas alternativas, técnica y económicamente viables.

Sin perjuicio de las previsiones de esta norma, las instala-ciones deberán cumplir en todo caso la reglamentación sobre instalaciones térmicas en los edificios y las demás disposicio-nes vigentes, especialmente en lo referido a la prevención y control de legionelosis. Sus componentes estarán sujetos a las homologaciones o reconocimientos pertinentes y estarán ampa-rados por la garantía en la venta de bienes de consumo, fijada por la legislación vigente.

Artículo 6. Potestades municipales.

El Ayuntamiento velará por el cumplimiento de las previ-siones de la presente norma mediante el ejercicio de las potes-tades que legalmente tiene atribuidas.

El Ayuntamiento ostenta respecto de las intervenciones afectadas por la presente ordenanza las potestades de inspec-ción, verificación y control, incluso mediante la realización de pruebas o ensayos de las obras e instalaciones para la compro-bación de las normas o condiciones técnicas exigibles, que le atribuya la legislación vigente.

Asimismo, podrá sancionar las conductas contrarias a las previsiones de esta norma previa tramitación del preceptivo expediente sancionador y dictar las órdenes de ejecución que fueran procedentes, previo expediente contradictorio.

TÍTULO II

VERIFICACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE LA ORDENANZA

Artículo 7. Información previa.

La persona interesada en la obtención de cualquier tipo de licencia urbanística podrá recabar de la administración munici-pal, antes de solicitarla, la información sobre los requerimien-tos de la presente ordenanza que resulten de aplicación a la actuación pretendida y su forma de cumplimiento y acredita-ción.

8. artikulua. Agiri osagarriak.

Hirigintza-lizentzia eskatzeko aurkeztutako proiektuarekin batera, ordenantza honetako IV.A. eranskinean azaldutako agiriak aurkeztu beharko dira.

Dagokion elkargo profesionalak proiektua eta agiri osagarriak onetsi beharko ditu, eta lanaren edo jarduketaren proiektugileak eta sustatzaileak sinatu egin beharko dituzte.

9. artikulua. Txosten teknikoa.

Derrigorrezkoak izan daitezkeen beste txosten batzuei kalterik egin gabe, lanetarako hirigintza-lizentzia emateko bideratutako espedienteetan, esleipena ebatzi baino lehen, udal-zerbitzu tekniko eskudunek txostena egin beharko dute. Bertan, oinarriko proiektua eta agiri osagarriak kontuan hartuta, proiektuak jarduketa motaren arabera arau honetan bete beharrekoa azalduko da.

10. artikulua. Hirigintza lizentzian kontuan hartu beharreko baldintzak.

Indarreko legeriaren arabera ezarri beharreko alderdi guztiak ez ezik, ordenantza hau eraginkortasunez ezartzeko asmoz lanek bete beharko dituzten baldintzak ere zehaztu beharko dira lanetarako hirigintza lizentzian, aurreko artikuluan aipatutako txosten teknikoa kontuan hartuta.

11. artikulua. Lanak edo jarduketak hasteko eskakizunak.

Hirigintza lizentzia emandakoan eta baimendutako jarduerak egiten hasi baino lehen, eskatzaileak honako agiri hauek erantsi beharko ditu hirigintza espedienteetan, arau hau bete egiten dela egiaztatu ahal izateko:

a) Indarreko arautegiaren arabera derrigorrean lortu behar denean eta IV.B. eranskinean halaxe aurreikusten denean, proiektuko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, arau hau bete egiten dela egiaztatzeko.

b) Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria derrigorrean aurkeztu behar ez denean, IV.B. eranskinean aipatutako agiriak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira, arau hau bete egiten dela egiaztatzeko.

Lanak ez dira hasiko, udal zerbitzu teknikoek IV.B. eranskinean arabera jarduketa mota bakoitzerako erantsitako agiriak egon badaudela eta zuzenak direla egiaztatzen ez badute.

12. artikulua. Lanen amaierako ziurtagiria eta lehen erabilerrako lizentzia.

1) Lanetan lehen erabilerrako lizentzia aurkeztu behar ez bada, ordenantza honetako eskakizunak bete egiten direla egiaztatu beharko da lanen amaierako ziurtagiriaren eta eguneratutako agirien bitartez. Gainera, proiektugileak sinatu eta dagokion elkargo ofizialak onetsi beharko ditu.

2) Lehen erabilerrako lizentzia lortzeko, beharrezkoa izanez gero, ordenantza honetako IV.C. eranskinean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

Ez da lehen erabilerrako lizentziarik emango, espedienteetan udal-zerbitzu teknikoek alde egindako txostenik ez badago, arau honetan aurreikusitakoa bete egiten dela egiaztatzeko.

Artículo 8. Documentación complementaria.

El proyecto que se presente para la solicitud de licencia urbanística correspondiente deberá acompañarse de la documentación que se describe en el Anexo IV.A de la presente Ordenanza.

El proyecto y documentación complementaria deberán ser visados por el Colegio Profesional correspondiente y firmados por la persona autora del proyecto y por la promoción de la obra o actuación.

Artículo 9. Informe técnico.

Sin perjuicio de otros informes que sean preceptivos, en el expediente que se tramite para la concesión de la licencia urbanística de obra, y con carácter previo a la resolución sobre su concesión, deberá obrar informe emitido por los servicios técnicos municipales competentes, en el que, a la vista del proyecto básico y de la documentación complementaria, se contengan las exigencias de la presente norma que el proyecto debe cumplir según el tipo de intervención de que se trate.

Artículo 10. Condiciones a incorporar a la licencia urbanística.

La licencia urbanística de obra deberá contener, además de cuantos aspectos sean necesarios en aplicación de la legalidad vigente, las condiciones que, de conformidad con el informe técnico descrito en el artículo anterior, la obra deberá cumplir para la efectiva aplicación de la presente ordenanza.

Artículo 11. Requisitos para el inicio de las obras o actuaciones.

Concedida la licencia urbanística y antes del inicio de las actuaciones autorizadas, la persona solicitante deberá aportar al expediente urbanístico, al objeto de que pueda comprobarse el cumplimiento de esta norma, la siguiente documentación:

a) en los supuestos en los que por la normativa vigente sea obligatoria su obtención, y cuando así se prevea en el Anexo IV.B, el cumplimiento de esta norma deberá acreditarse mediante la presentación del Certificado de Eficiencia Energética de Proyecto.

b) en aquellos casos en los que no sea preceptivo el certificado de eficiencia energética, la acreditación se efectuará mediante la aportación de la documentación que asimismo se relaciona en el Anexo IV.B, debidamente cumplimentada.

No podrá darse inicio a las obras sin la comprobación por los servicios técnicos municipales de la existencia y corrección de la documentación incorporada según el Anexo IV.B citado para cada tipo de intervención.

Artículo 12. Certificado Fin de Obra y Licencia de primera utilización.

1) En las obras en las que no sea necesaria la licencia de primera utilización, será preceptiva la acreditación del cumplimiento de los requisitos de esta Ordenanza mediante el Certificado Final de Obra y documentación actualizada, firmados por la persona autora del proyecto y visado por el Colegio Profesional correspondiente.

2) Para la obtención de la licencia de primera utilización, en los casos en que sea necesaria, deberá acompañarse la documentación relacionada en el Anexo IV.C de la presente Ordenanza.

No se concederá licencia de primera utilización si no obra en el expediente informe favorable de los servicios técnicos municipales en el que se compruebe el cumplimiento de lo previsto en la presente norma.

Era berean, lehen erabilerarako lizentzia lortzeko, eguzki-energia erakartzeko instalazioek jarduera lizentzia izan beharko dute.

Indarreko arautegiaren arabera derrigorrean lortu behar denean eta IV.C. eranskinean halaxe aurreikusten denean, amaitutako eraikineko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria (eraikinaren liburuan sartu beharreko bera) aurkeztu beharko da, arau hau bete egiten dela egiaztatzeko.

III. TITULUA.

EGUZKI-ENERGIA ERAKARTZEKO INSTALAZIOAK

13. artikulua. Instalazioetako jarduera lizentzia.

1. Ordenantza honetako I.D. eta I.E. eranskinetan xedutakoaren arabera, eguzki-erakarpen fotovoltaiako sistemak eta eguzki-ekarpen termikoko sistemadun instalazio termiko zentralizatuak jarri behar dira eraikin eta eraikuntzetan. Sistema eta instalazio horiek, hain zuzen ere, dagokien jarduera lizentzia lortu beharko dute, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuan aurreikusitakoa kontuan hartuta. Dekretuan bertan, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorrean edo haren ordezkotako arauan aurreikusitako jarduera lizentzia lortu behar ez duten jardueren zerrenda azaltzen da.

14. artikulua. Prozedura.

1. Jarduera lizentzia eskatu baino lehen, interesdunak kontsulta egin ahal izango dio udalari, lizentziaren eskakizun juridiko eta teknikoan, ustezko neurri zuzentzaileen eta jardueraren bideragarritasun formalaren berri eman diezaion.

2. Lizentzia eskabidearekin batera, teknikari eskudunak egindako eta dagokion elkargo profesionalak onetsitako proiektu teknikoa aurkeztu beharko da. Proiektuan, ordenantza honetan aurreikusitako eskakizunak bete egiten direla egiaztatzeko beharrezkoak diren kalkulu analitiko guztiak agertuko dira. Horrez gain, indarreko araudi teknikoan aurreikusitakoaren arabera ezarri beharreko sistemaren ezaugarriak eta 165/1999 Dekretuan edo bere ordezkotako arauan aurreikusitako agiriak zein diren azalduko da zehatz-mehatz.

3. Lanak egindakoan eta sistemak jarritakoan, teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, egindako instalazioa aurkeztutako proiektura edo agirietara egokitzen dela egiaztatzeko. Era berean, Eusko Jaurlaritzak edo dagokion erakunde publikoak homologatutako enpresarekin 3 urterako (-gutxienez) artapen eta zaintzarako kontratua sinatu dela egiaztatzen duten agiriak ere aurkeztu beharko dira.

15. artikulua. Artatzeko betebeharrak.

Eguzki-energia termikoa (ur beroa sortzeko) edo fotovoltaiakoa erakarki eta erabiltzeko sistemak, norberaren instalazioak edo partekatuak diren kontuan hartu gabe, behar bezala artatu eta konpondu egin behar izango dira, behar den moduan eta eraginkortasunez ibil daitezten. Horrela, sistemak behar den moduan ibiliko dira, proiektuan zehaztutako prestazioen eta erabili eta artatzeko argibideen arabera.

Instalazioak behar den moduan artatzen direla ziurtatzeko, indarreko araudiaren araberrako zaintza-plana egin beharko da, eta, bertan, behar besteko jarduera guztiak agertuko dira, instalazioaren operazio-balioak zuzenak direla bermatzeko.

Asimismo, para la obtención de la licencia de primera utilización será preciso que las instalaciones de captación de energía solar cuenten con licencia de actividad.

En los supuestos en los que por la normativa vigente sea obligatoria su obtención, y cuando así se prevea en el Anexo IV.C, el cumplimiento de esta norma deberá acreditarse mediante la presentación del Certificado de Eficiencia Energética del Edificio Terminado, a incluir en el libro del edificio.

TÍTULO III

INSTALACIONES DE CAPTACIÓN DE ENERGÍA SOLAR

Artículo 13. Licencia de actividad de las instalaciones.

1. Los sistemas de captación solar fotovoltaica y las instalaciones térmicas centralizadas con sistema de contribución solar térmica, que deban instalarse en los edificios y construcciones de conformidad con lo establecido en los Anexos I.D y I.E de esta Ordenanza deberán obtener la preceptiva licencia de actividad, conforme a las previsiones del Decreto 165/1999 de 9 de marzo por el que se establece la relación de las actividades exentas de la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/1998, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, o norma que lo sustituya.

Artículo 14. Procedimiento.

1. Con antelación a la solicitud de licencia de actividad, la persona interesada podrá realizar una consulta al Ayuntamiento, a fin de que se le proporcione información sobre los requisitos jurídicos y técnicos de la licencia y de las medidas correctoras previsibles, así como sobre la viabilidad formal de la actividad.

2. La solicitud de la licencia deberá acompañarse de proyecto técnico elaborado por persona técnica competente y visado por el Colegio Profesional correspondiente. En el proyecto se contendrán los cálculos analíticos necesarios para justificar el cumplimiento de los requisitos previstos en esta ordenanza y se detallarán las características del sistema a implantar de conformidad con lo previsto en la reglamentación técnica vigente, así como la documentación prevista en el Decreto 165/1999 citado, o norma que lo sustituya.

3. Ejecutadas las obras e instalados los sistemas, deberá aportarse certificado suscrito por persona técnica competente en el que se acredite que la instalación realizada se ajusta al proyecto o documentación presentada. Se aportará asimismo documentación acreditativa de haber suscrito un contrato de mantenimiento y vigilancia con empresa homologada por el Gobierno Vasco o la Entidad Pública competente, por un mínimo de 3 años.

Artículo 15. Obligaciones de mantenimiento.

Los sistemas de captación y utilización de energía solar térmica, para la producción de agua caliente, o fotovoltaica, consistan aquellos en una instalación propia o compartida, deben ser utilizados y sometidos a las operaciones de mantenimiento y las reparaciones necesarias para mantenerlos en perfecto estado de funcionamiento y eficiencia, de manera que los sistemas operen adecuadamente de acuerdo con las prestaciones definidas en el proyecto y las instrucciones de uso y mantenimiento pertinentes.

A fin de asegurar el buen mantenimiento de las instalaciones, se deberá elaborar, de conformidad con la normativa vigente, un plan de vigilancia que englobe todas las operaciones necesarias que permiten asegurar que los valores operacionales de la instalación sean correctos.

Era berean, honako jarduera hauek kontuan hartzen dituen artapen-plana ere egin beharko da: Ikusizko ikuskapena, jarduketan egiaztapena eta beste batzuk. Gainera, instalazioan ezarritik gero, instalazioaren funtzionamendu-baldintzak, prestazioak, babesa eta iraunkortasuna muga onargarrien barruan egon beharko dira.

Gutxienez, instalazioak urtean behin ikuskatuko dira, beren erakapen-azalera 20 m²-tik beherakoa denean; eta sei hilean behin, erakapen-azalera 20 m²-tik gorakoa denean.

Artapen-plana teknikari eskudunek egin beharko dute, eguzki-teknologia termikoa eta instalazio mekaniko orokorrak nola dabilen jakin beharko dutelako. Instalazioak artapen-liburua izango du, eta, bertan, egindako jarduera guztien nahiz zuzenketarako artapenaren berri emango da.

Bizitza teknikoan zehar sistema behar bezala dabilela ziurtatzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak kontuan hartuko dira artapenean, hau da, elementu suntsigarrien edo erabileraren ondorioz narriatutako elementuen artapena eta ordezkapena.

Ordenantza honetan araututako lizentzietako klausulak aldatu egin ahal izango dira, baliatzeko moduan den teknologorik onenera etengabe egokitu ahal izateko. Dena dela, aldaketa horiek ez dira funtsezkoak izango.

Udalak eguzki-instalazioak ikuskatu, beren egoera kontrolatu, beharrezkoak izan daitezkeen neurri zuzentzaileak ezarri eta betearazpen-aginduak eman ahal izango ditu, emandako jarduera lizentziara egokitu daitezen.

IV. TITULUA

ORDENANTZA BETE EGITEN DELA BERMATZEA

I. KAPITULUA. IKUSKAPENA

16. artikulua. *Ikuskapena eta kontrola.*

